



Arabako Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Álava

[www.araba.eus](http://www.araba.eus)

## Prentsa Oharra Nota de Prensa

### Aldundiak onespina eman dio Forondako jauregia saltzeari 1,2 milioi eurotan

Promociones Morgoitia SL enpresa izango da jabetzaren eroslea, 27.812 metro koadroko azalera duena

**Gasteiz, 2019ko irailaren 3a.** Arabako Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak onespina eman dio Forondako jauregia 1,2 milioi eurotan saltzeari. Lurzatia Forondako herrigunean kokatuta dago eta 27.812 metro koadro dauzka eta 2.220 metro koadroko azalera eraikia.

Promociones Morgoitia SL enpresa izango da eroslea, aldundiak higiezina enkante publikoan eskaini eta hutsik geratu ostean.

Izan ere, jabetza hori hutsik dago 2011tik. Jabetzak jauretzea, etxe atxiki bat -bertako etxe deritzona-, oilategia, zaintzailearen etxea eta pilotalekua dauzka. Halaber, lorategi aldean pinudia, baratzea eta berotegia daude.



## Aldundiak 2019ko basogintzarako laguntzak ebazten jarraitzen du

Foru gobernuak laguntzak ematen ditu basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak konpontzeko eta basogintzako teknologietan inbertitzeko

Arabako Foru Aldundiak 2019ko basogintzarako laguntzak ebazten jarraitzen du. Arabako mendien ingurumen balioa eta balio ekonomikoa handitzeko 330.000 euro banatu ondoren, oraingo honetan, Gobernu Kontseiluak zenbait laguntza ebatzi ditu basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak konpontzeko, bai eta beste laguntza batzuk ere, basogintzako teknologietan eta baso produktuen transformazioan, mobilizazioan eta merkaturatzean inbertitzeko. Bi laguntza mota horiek, orotara, 36.000 euro baino gehixeago egiten dute.

Lehenengo atalean, onuradun bakar batek 33.000 euroko zenbatekoa jasoko du, zenbait basotan suteek eta hondamendi naturalek kaltetutako materialak kentzeko. Bestalde, bigarren laguntza lerroan, hiru ustiatetik laguntza jasoko dute ongarritze lanak egiteko, eta beste bik baso kudeaketa jasangarrirako plan teknikoak egiteko.

## Aldundiak 590.000 euro baino gehiagorekin lagunduko du eskola kirola

Laguntzei esker, 13.000 neska-mutil eta 235 erakunde izango dira onuradunak

Arabako Foru Aldundiak guztira 591.301 euroekin lagunduko du eskola kirola, Arabako neska-mutilen artean kirola sustatu eta ahalbidetzeko. Irabazteko xederik gabeko 13.000 kirolari eta 235 erakunde izango dira dirulaguntza hauen onuradunak.

Foru Gobernu Kontseiluak gaur ebatzi du 2018/2019 kanpainaren eskola kirolerako dirulaguntza deialdia, haren hainbat programatarako: kirol modalitate bakar batean izena ematea eta hainbat kirol konbinatzen dituzten jardueretan izena ematea. Lehenengoan, 11.057 kirolari eta 949 talde sartzen dira, eta bigarrean, 139 talde eta 2.007 eskola neska-mutil.

Deialdi honek, gainera, sei erakunde finantzatzen ditu, dozena bat inguru ekipo/taldek langile espezializatuak izan ditzaten haur desgaituei arreta emateko.

Eskola kirolerako laguntzek aurten 591.301 euroko zuzkidura daukate, zeinek jomuga baitituzte 13.000 neska-mutilentzako baino gehiagorentzako kirol jarduerak antolatzen dituzten irabazteko xederik gabeko 235 erakunde (ikasleen gurasoen elkarteak, kirol klub eta elkarteak, federazioak eta abar).

Deialdi honetan sartzen diren kirolak askotarikoak dira: txirrindularitza, futbola, tenisa, igeriketa, pilota, atletismoa, eskubaloia, mahai tenisa, gimnastika, saski baloia, errugbia, borroka arteak, padela, badmintona, irristaketa, eskrima, golfa, xakea, hockey-a, borroka, eta abar. Halaber, modalitate horietariko hainbat jasotzen dituen jarduera eskaintza laguntzen du.

Deialdi honen xedea da sustatzea Arabako eskola neska-mutilek kirola egin dezatela, haien hezkuntza garapena osatzeko. Kirola tresna baliotsu bat da berdintasuna landu, balioen zabalkundea egin (tolerantzia, errespetua, talde lana, eta abar) eta bizitza osasuntsu baterako ohiturak irakasteko.